## LEZOKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzarrak, 2013/01/31 datan egindako ohizko bilkuran, Hiri Hondakinak Bildu eta Tratatzeko Udal Ordenantza onartu zuen behin betikoz.

Ondoren transkribatzen da.

*Hiri hondakinak bildu eta tratatzeko Udal Ordenantza. 2012H0290007.*

SARRERA

I TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburua.*

1. Ordenantza honek, Udalaren eskuduntzen barruan, Lezoko udalerriko hiri hondakinen (HH) bilketa eta tratamendua arautzea du helburu.

2. Era berean, kudeaketa bideratzen duen udalaren eta zerbitzua erabiliko dutenen arteko harremana arautzen du, alde bakoitzaren eskubide, eginbehar eta betebeharrak zehaztuz.

*2. artikulua. Aplikazio eremua.*

Ordenantza honen lurralde eremua Lezoko Udal barrutia da.

*3. artikulua. Kudeaketaren arduraduna.*

Hiri hondakinen kudeaketa Lezoko Udalari dagokio, industri poligonoetakoa izan ezik hau San Marko Mankomunitateari baitagokio. Haatik poligono hauek kudeatzeko ahalmena gordetzen du Lezoko udalak horrela erabakiz gero.

*4. artikulua. Erabiltzaileak.*

Zerbitzu hauetako prestazioetan erabiltzaile dira zerbitzu hauen onuradun edo kaltetu diren pertsona fisiko nahiz juridikoak, baldin eta Lezoko Udalerrian helbidea badute.

*5. artikulua. Araudi aplikagarria.*

Ordenantza honek Hondakinen eta lur kutsatuen uztailaren 28ko 22/2011 Legeari eta gainontzeko xedapen aplikagarriei jarraitzen die.

*6. artikulua. Hondakinen definizioa.*

Ordenantza honen ondorioetarako «hondakin» gisa hartuko da: Hondakinei eta lur kutsatuei buruzko uztailaren 28eko 22/2011 Legearen 3. artikuluan agertzen diren kategorietakoren bati dagokion edozein sustantzia edo gauza, baldin eta horren edukitzaileak botatzen badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu. Nolanahi ere, Europako Batasuneko Erakundeek onarturiko Hondakinei buruzko Europako Katalogoan (CER) adierazten direnak ere hartuko dira hondakin gisa.

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el 31/01/2013, aprobó definitivamente la Ordenanza reguladora de la Recogida y Tratamiento de Residuos Urbanos.

A continuación se transcribe el texto íntegro:

*Ordenanza reguladora de la recogida y tratamiento de residuos urbanos. 2012H0290007.*

INTRODUCCIÓN

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto.*

1. Esta ordenanza tiene por objeto regular, dentro de la esfera de la competencia municipal, la recogida y tratamiento de residuos urbanos del municipio de Lezo.

2. Regula asimismo, las relaciones entre el Ayuntamiento que asume la Gestión de los servicios de recogida y los usuarios de los mismos; determinando los derechos, deberes y obligaciones de cada una de las partes.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

El ámbito territorial de la presente Ordenanza se refiere al término municipal de Lezo.

*Artículo 3. Responsabilidad de la gestión.*

La gestión de los residuos urbanos corresponde al Ayuntamiento de Lezo. Excepto la gestión correspondiente a los polígonos industriales, que corresponde a la Mancomunidad de San Marcos. No obstante el Ayuntamiento de Lezo se reserva la facultad de gestionar dichos polígonos previo acuerdo a tal efecto.

*Artículo 4. Usuarios.*

Son usuarios todas las personas físicas y jurídicas que resultan beneficiadas o afectadas por dichos servicios y estén domiciliadas en el municipio de Lezo.

*Artículo 5. Normativa aplicable.*

La regulación de la presente Ordenanza se atiene a los principios de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados y demás disposiciones aplicables.

*Artículo 6. Definición de Residuo.*

A los efectos de la presente Ordenanza se entenderá por «residuo»: Cualquier sustancia u objeto correspondiente con las categorías señaladas en el artículo 3 de la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, siempre que su poseedor lo deseche o tenga la intención o la obligación de desechar. Asimismo, tendrán la consideración de residuos todos aquellos elementos calificados como tales en el Catálogo Europeo de Residuos (CER) aprobado por los Organismos de la Unión Europea.

## II. TITULUA

## BILKETA ZERBITZUA

### I. KAPITULUA ETXEZ ETXEKO BILKETA

*7. artikulua. Etxez etxe biltzen diren hondakinak.*

a) Ordenantza honen ondorioetarako, etxez etxeko hondakin bilketaren barruan ondoko hondakin hauek sartuko dira:

b) Etxeko kontsumo eta elikadurak sortutako hondakinak eta detritusak, ontziteria edo beira hondakinak, ontziak, enbalajeak, kartoiak, oinetako edo jantzien hondakinak eta orokorrean edozein etxetan sortutako zaborreria, aurrez udalak jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan biltzeko.

c) Atalean aipatutakoen antzeko jatorria dutenak, baina dendetan, industrietan eta zerbitzuetan sortuak, aurreko atalean adierazitako baldintzetan prestatuta.

d) A ataleko berberak, baina hauek jantoki, eskola, eraikin publiko, eliza, jolas-gune eta abarretan sortuak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

e) Merkatu, feria, festa publiko, etab.en garbiketetatik sortutako hondakinak, A atalean aipatutako baldintzetan prestatuta.

f) Bide publikoa garbitzearen ondorioz sortzen diren hondakinak.

*7 bis artikulua.*

Lezoko udalerrian merkataritzako hondakin ez arriskutsuen eta industrietan sortutako hondakin domestikoen kudeaketa ordenantza honetan edo inoiz honen ordez onartzen den araudian adierazitako moduan jarritako sistema publikoaren barruan sartuta geratuko dira derrigor, eta honelako hondakinak dituzten hasierako ekoizle edo edukitzaileek ezingo dute Lurzoru kutsatuen eta hondakinen inguruko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 17. artikuluaren 3. atalean jasotako aukera baliatu.

*8. artikulua. Etxez etxeko bilketatik kanpo gelditzen diren hondakinak.*

Kanpoan geratzen dira eta, hortaz, etxez etxeko bilketan hartu beharrik ez da egongo, honako hondakin hauek:

— Indusketa produktuak, hareak, lurrak, industrietako errautsak, eta herri-lanetako nahiz lan pribatuetako zaborrak.

— Edozein pneumatiko mota, estalkiak, industri prozesuetako hondakin plastikoak, bernizak, pinturak, kolak, likido korrosiboak, koipeak eta olioak.

— Bidoiak, lata handiak, zumitzak, eta txirbilak.

— Inausketa eta lorazaintzako hondakinak.

— Abeltzaintzako abelburu hilak.

— Arrandegi zein harategiek sortzen dituzten arrain hondakinak edo/eta animali hondakinak.

— Merkataritzan sortzen diren porespaneko bildukiak

— Altzarien eta tamaina handikoen bilketan: Isolatutzat edo bakartzat jo ezin diren altzariak edo etxeak altzariz janztean sortzen direnak, bai eta etxeak altzariz janztean edo etxez aldatzean sortzen diren bilgarriak ere.

## TÍTULO II

## SERVICIO DE RECOGIDA

### CAPITULO I. RECOGIDA DOMICILIARIA

*Artículo 7. Residuos objeto de la recogida domiciliaria.*

a) A efectos de la presente Ordenanza, tendrán la consideración de recogida domiciliaria de residuos, los siguientes residuos:

b) Los detritus y desperdicios de la alimentación y consumo doméstico, residuos de cristal o vajilla, envases, embalajes, cartones, desperdicios de vestido y calzado y en general todo residuo producido normalmente en un domicilio y presentado para su recogida en el día, la hora, la forma y el lugar fijados por el ayuntamiento.

c) Los de análoga naturaleza a los descritos en el apartado A, producidos en actividades comerciales, industriales y servicios, presentados y acondicionados en la misma forma indicada en el apartado citado.

d) Los mismos del apartado A, procedentes de comedores, escuelas, edificios públicos, de culto, recreativos, etc., presentados y acondicionados en la misma forma que indica el apartado citado.

e) Los detritus y productos de limpieza de mercados, ferias, fiestas públicas, etc., presentados y acondicionados según se indica en el apartado A.

f) Los residuos generados en la limpieza de la vía pública.

*Articulo 7 bis.*

La gestión de los residuos comerciales no peligrosos y los domésticos generados en industrias en el municipio de Lezo quedan incorporados obligatoriamente al sistema público implantado en los términos señalados en esta Ordenanza o en la normativa que pueda sustituirla en el futuro, sin que los productores o poseedores iniciales de este tipo de residuo puedan ejercer la posibilidad prevista en el artículo 17 apartado 3.º de la Ley 22/2011 de 28 de julio, de Residuos y Suelos Contaminados.

*Artículo 8. Residuos excluidos del servicio de recogida domiciliaria.*

Quedan excluidos, y por tanto, considerados como de recepción no obligatoria de la recogida domiciliaria de residuos:

— Productos de excavación, arenas, tierras, cenizas industriales y cualquier escombro tanto de obra pública como privada.

— Neumáticos de cualquier tipo, cubiertas, residuos plásticos de procesos industriales, barnices, pinturas, colas, líquidos corrosivos, grasas y aceites.

— Bidones, latas grandes, flejes y virutas.

— Residuos procedentes de podas y labores de jardinería.

— Animales muertos en explotaciones ganaderas.

— Residuos animales que se generan en pescaderías y carnicerías

— Envoltorios de poliespan generados en el comercio.

— En recogidas de muebles y enseres de gran tamaño: Muebles y elementos procedentes de cambio de mobiliario en viviendas que no pueden considerarse como aislados, incluidos los envoltorios procedentes del amueblamiento de viviendas o traslado de domicilio.

— Etxeetan era guztietako obrak eta berrikuntzak egiten dituzten herritar, gremio eta arduradunek sortutako hondakinak, hala nola zaborra, egurra, leiho- edo ate-markoak, zokaloak, pertsianak, oholtza, zoruak, moketa, bainuontziak, komun-ontziak, konketak, sukaldeko altzariak, erradiadoreak edo antzekoak eta, oro har, obretan sortzen direnak.

— Udalak zehaztu gabe dauden beste hiri-hondakin mota batzuk sartu ahal izango ditu aurreko zerrendetan, baldin eta beren ezaugarri bereziengatik edo izaeragatik, hondakinen bilketarako udal zerbitzuak bere gain hartu ezin baldin baditu.

*9. artikulua. Derrigorrezko zerbitzua.*

Udala derrigortuta dago etxez etxeko hondakinen bilketa egitera eta, hortaz, 7. artikuluan adierazitako materialak biltzeko ardura hartuko du.

*10. artikulua. Prestazioak.*

Zerbitzu horren egin beharrak honako hauek dira:

— Hondakinak uzteko modu eta tokietatik bilketa ibilgailuetara eraman eta han hustu.

— Hustu ondoren, edukiontziak bere lekuetara itzuli.

— Lan horien ondorioz bide publikora eroritako hondakinak jaso.

— Hondakinak zehaztuak dauden tratamendu guneetara edo transferentzia zentroetara eraman eta han hustu, bertan trata ditzaten.

*11. artikulua. Hondakinen jabegoa.*

1. Hiri hondakinen ekoizleek (sortzaileek) zein dauzkatenek, Ordenantza honetan jasotzen diren baldintzetan utzi beharko dituzte Erakunde Kudeatzailearen esku: Hau da, Lezoko Udalaren esku; Udalak, hondakinen jabetza har dezan, une horretatik bertatik.

2. Pertsona horiek ez dute erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta hondakinak uzterakoan Ordenantza honek dioena eta gainerako lege-arauak bete badituzte.

*12. artikulua. Zerbitzuaren prestazioa.*

Hiri Hondakinen mota guztien bilketaren maiztasuna Udalak erabakiko du, Udalerriaren interesak kontuan hartuta.

*13. artikulua. Programazioa.*

Udalak jakitera emango du bilketa zerbitzuaren programazioa: Egunak, ordutegiak eta bitartekoak. Hala ere, zerbitzuak izan ditzakeen beharren arabera, interes publikoari begira egokitzat jotzen dituen aldaketak egin ahal izango ditu Udalak, aldez aurretik ordutegi, bilketa erak edo maiztasun aldaketen berri emanda. Dena den, larrialdi, ustekabe edo ezinbesteko egoeretan bidezko diren xedapenak emango ditu alkateak. Zehaztapenak Alkatetza-Bando baten bidez erregulatuko dira.

*14. artikulua. Larrialdiak.*

Larrialdi egoerak ematen direnean, direla gizarte-gatazkak, uholdeak edo ezinbesteko egoeragatik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, eta Udalak aldez aurretik jakinarazten badu, bizilagunek ez dituzte aterako hondakinak, zerbitzua bere onera etorri bitartean, edo Udalak bidezko aginduak eman bitartean.

— Residuos generados en obras y reformas de todo tipo realizadas por ciudadanos, gremios o diversos responsables, tales como escombros, maderas, marcos de puertas y ventanas, zócalos, persianas, tarimas, suelos, moquetas, bañeras, inodoros, lavabos, muebles de cocina, radiadores y similares y, en general, cualquier residuo de obra.

— Otros residuos no especificados expresamente por el Ayuntamiento, que por su naturaleza o características especiales, no puedan se atendidos por el servicio municipal de recogida de residuos.

*Artículo 9. Servicio obligatorio.*

El Ayuntamiento está obligado a hacerse cargo de la recogida de residuos domiciliarios y se hará cargo de retirar los materiales especificados como de recepción obligatoria por parte del municipio, siendo éstos los señalados en el artículo 7.

*Artículo 10. Prestaciones.*

La prestación de este servicio comprende las siguientes operaciones:

— Traslado de los residuos desde los lugares y formas indicados y vaciado de los mismos en los vehículos de recogida.

— Devolución de los elementos de contención, una vez vaciados, a los puntos originarios.

— Retirada de restos de residuos caídos en la vía pública como consecuencia de estas operaciones.

— Transporte y descarga de los residuos en las correspondientes plantas de tratamiento o en las estaciones de transferencia que corresponda, para su posterior tratamiento.

*Artículo 11. Propiedad de los residuos.*

1. Los productores (generadores) o poseedores de residuos urbanos deberán ponerlos en las condiciones que se determinan en esta Ordenanza a disposición del Ente Gestor, esto es, a disposición del Ayuntamiento de Lezo, quien adquirirá la propiedad de los mismos desde la entrega y recogida.

2. Dichas personas quedarán exentas de responsabilidad por los daños que puedan causar tales desechos o residuos, siempre que en su entrega se haya observado la presente Ordenanza y demás normas legales.

*Artículo 12. Prestación del servicio.*

El Ayuntamiento establecerá la recogida de los residuos domiciliarios, en todas sus modalidades, con la frecuencia que considere más conveniente e idónea para los intereses del Municipio.

*Artículo 13. Programación.*

Los servicios del Ayuntamiento harán pública la programación prevista de días, horarios y medios para la prestación de los servicios de recogida y de acuerdo con las necesidades del servicio podrá introducir las modificaciones que, por motivos de interés público, tenga por conveniente, divulgándose con suficiente antelación, los cambios en el horario y la forma o frecuencia de prestación del servicio. El Alcalde dictará las oportunas disposiciones en situaciones de emergencia, caso fortuito o fuerza mayor. Las especificaciones de detalle se regularán mediante Bando de Alcaldía.

*Artículo 14. Casos de emergencia.*

En aquellos casos considerados de emergencia, tales como conflictos sociales, inundaciones u otras situaciones de fuerza mayor en las que no sea posible prestar el servicio, y previa comunicación municipal, los vecinos se abstendrán de depositar sus residuos hasta que se normalice el servicio, o hasta que el Ayuntamiento dicte las instrucciones oportunas.

*15. artikulua. Hiri hondakinak biltzeko gune edo puntuak.*

Udal zerbitzuek erabakiko dituzte zonalde bakoitzean erabili beharreko biltze guneak eta, haien motak, kopurua eta kokapenak, udalerriaren interesak kontuan hartuta.

*16 artikulua. Hiri hondakinak uzteko eta bertatik jasotzeko gelak.*

1. Hondakinetarako gelen dotazioaren aplikazio-eremua.

1. Araudi hau indarrean jartzen denetik aurrera, udalerriko hiri lurzoruan eta lurzoru hiritargarrian eraikitzen diren oin berriko eraikinek, ordenantza honetan ezarrita dagoen hiri hondakinen bilketa araudia bete behar dutenek, finkan sortutako hiri hondakinetarako gela bat izan beharko dute, udal zerbitzuek hondakinen bilketa, ordenantza honetan araututa dagoen atez ateko sistemaren arabera, errazago egin dezaten.

2. Obligazio bera izango dute lehendik zeuden eraikinak ordezkatu edo erabat birgaitzeko egiten diren lanen ondorioz eraikitzen diren eraikinek ere.

3. Salbuespen gisa, udalak obligazio hau bete beharra barkatu ahal izango du, bidezko jotzen dueneraino, obligazio hau artikulu honetan jasotako moduan betetzea fisikoki ezinezkoa egiten duten arrazoiak baldin badaude, behar bezala justifikatutakoak (esate baterako: Erabilera, eraikinaren tipologia, kultura ondarearen babes araubidea, etab.), edo hirigintza aldetik egokia ez bada, eta baldin eta:

— Sustatzaileak edo jabeak justifikatzen badu, ondo arrazoituta, zerk galarazten duen edo zerk egiten duen ez komenigarri ordenantza honetan ezarritakoa betetzea.

— Bermatzen bada ordenantza honetan araututako bilketa sistemaren funtzionaltasunarekin eta helburuekin bat datozen bestelako neurriak hartuko direla.

— Udalaz gaindiko arauak betetzen badira (orokorrean aplikatu beharreko legeak, Eraikuntzaren Kode Teknikoa, etab.)

— Udaleko zerbitzu teknikoek aldeko txostena egiten badute.

2. Hondakinetarako gelaren azalera eta neurriak.

1. Hiri hondakinetarako gela hauen gutxieneko azalera erabilgarria kalkulatzeko, indarrean dagoen Eraikuntzaren Kode Teknikoaren HS2 sekzioaren (hondakinen bilketa eta ebakuazioa) 2.1.2.1 artikuluan jasota datorren formula aplikatuko da.

2. Gelaren neurri txikiena ezingo da izan 2 m baino gutxiagokoa aurrez aurreko bi paramenturen artean.

3. Nolanahi ere, eraikinen oinarrizko eta exekuzio egitasmoetan jaso beharreko azalera erabilgarria eta neurriak eta geometria bermatuko dute ordenantza honen bidez araututako hiri hondakinen biltegiratze eta bilketa sistemak behar bezala funtzionatuko dutela, eta, behar izanez gero, epigrafe honetan ezarritako gutxienekoak gaindituz.

3. Hondakinetarako gelen kokapen baldintzak.

1. Eraikitako finka independente bakoitzak gela berezi bat izango du hiri hondakinak bertara eramateko eta handik jasotzeko.

*Artículo 15. Puntos de recogida de residuos sólidos urbanos.*

El tipo de contenedores, el número de unidades a emplear en cada zona y su ubicación, se fijará por los servicios del ayuntamiento, teniendo en cuenta los intereses del municipio.

*Artículo 16. Locales para el depósito y recogida de residuos urbanos.*

1. Ámbito de aplicación de la dotación de locales.

1. A partir del momento en que entre en vigor la presente normativa, todas las edificaciones de nueva planta que se construyan en el suelo urbano y en el suelo urbanizable del municipio, y que estén sujetas al régimen de recogida de residuos urbanos establecido por la presente ordenanza, quedarán dotadas de un local destinado al depósito de los residuos urbanos de la finca, a efectos de facilitar su recogida por el servicio municipal, según el sistema «Puerta a puerta» regulado por esta Ordenanza.

2. Igual obligación recaerá, para dichos casos de aplicabilidad de la ordenanza, sobre las construcciones resultantes de operaciones de sustitución, ó de rehabilitación integral de edificaciones preexistentes.

3. Excepcionalmente, en aquellos casos en los que por razones debidamente justificadas (uso, ó tipología especial del edificio, régimen de protección del patrimonio cultural, etc) resultara físicamente inviable, ó inadecuado urbanísticamente, el cumplimiento de esta obligación en los términos adoptados por el presente artículo, el Ayuntamiento podrá dispensar de su aplicación, con el alcance que estime oportuno, siempre que:

— El promotor, ó propietario, justifique fundamentadamente las circunstancias, ó hechos que hacen imposible, ó inconveniente el cumplimiento de la Ordenanza.

— Se garantice la adopción de medidas alternativas, ó sustitutorias que sean acordes con la funcionalidad y con los objetivos del sistema de recogida adoptado por esta Ordenanza.

— No se incumplan normas supramunicipales (leyes de general aplicación, Código Técnico de la Edificación, etc.).

— Se emita informe favorable al efecto de los Servicios Técnicos Municipales.

2. Superficie y dimensiones de los locales.

1. La superficie mínima útil de estos locales de depósito y recogida de los residuos urbanos se calculará aplicando la fórmula prevista en el artículo 2.1.2.1 de la Sección HS2 «Recogida y evacuación de residuos» del vigente Código Técnico de la Edificación.

2. La dimensión menor del local no será inferior a 2 m. entre dos paramentos enfrentados.

3. En todo caso la superficie útil y las dimensiones y la geometría de los locales a adoptar por los Proyectos Básicos y de Ejecución de las edificaciones, garantizarán el adecuado funcionamiento del sistema de almacenamiento y de recogida de residuos urbanos, regulado por la presente Ordenanza, superando si fuera necesario los mínimos establecidos en el presente epígrafe.

3. Condiciones de emplazamiento de los locales.

1. Cada finca edificada independiente dispondrá de un local específico destinado al depósito y recogida de los residuos urbanos.

2. Udalak, koordinazio arrazoiak edo arrazoi funtzionalak tarteko, mugakide diren hainbat finkei dagozkien hondakinetarako gelak gela bakar batean bateratzeko baimena eman dezake.

3. Hondakinetarako gela eraikinaren barruan egongo da. Hondakinetarako gela eraikinetik kanpo, jabetza pribatuko lurretan, kokatzea ere baimendu ahal izango da, baldin eta lursailaren hirigintza baldintzak kontuan hartuta hala egiterik baldin badago (indarrean dagoen antolamendu xehakatua). Nolanahi ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren HS2 sekzioaren (hondakinen bilketa eta ebakuazioa) 2.1.1 artikuluaren 1. atalean jasotako gehieneko distantziaren baldintza bete beharko da.

4. Hondakinetarako gelen irisgarritasun baldintzak.

1. Finkako hiri hondakinak uzteko erabiliko den gela, ahal dela, beheko solairuan egongo da, kanpoko aldetik sarbide zuzena duela. Salbuespen gisa eraikinaren sestra azpiko beste solairuren batean jartzeko baimena ere eman ahal izango da, bermatzen bada udal zerbitzuek hondakinak jasotzeko lana egoki egin ahal izango dituztela eta irisgarritasunarekin lotutako ondoko baldintza hauek betetzen badira:

— Hondakinetarako gelaren eta eraikinaren kanpoko aldearen artean komunikazio sarbide zuzena egotea, bestelako erabileretarako espazioetakoekiko independentea (pribatiboak nahiz guztientzakoak izan). Kanpoko aldetik hondakinetarako gelarainoko ibilbidea gehienez 10 m-koa izatea.

— Hondakinetarako gelatik kanpoko bilketa punturainoko ibilbideak gutxienez 1,20 m-ko zabalera librea izan behar du, eta tartean ez da eskailerarik izango. Bestalde, ibilbide horretan irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudiaren baldintzak bete behar dira.

— Esparrua ixteko ateak, edo aipatutako ibilbide horretan jarri beharrekoak, eraikinaren kanpoko aldera irekitzekoak izango dira eta orria gutxienez 1 m-ko zabalera izan beharko du. Ateen sarrailak orokortuak izango dira, hiri hondakinak biltzeko udal zerbitzuak erabiltzen dituen giltzen ezaugarrien arabera.

2. Udalak, udal zerbitzu teknikoek aldeko txostena egin ondoren, hondakinetarako geletara sartzeko bestelako soluzioak onartu ahal izango ditu, atal honetan jasotakoarekin estu-estu ez badatoz ere, baldin eta erabat bermatzen bada hartutako irtenbideak ez duela hiri hondakinak jasotzeko sistemaren funtzionamendu egokia nabarmen galaraziko ez eta sistema horrekin lotutako oinarrizko helburuak nahiz aplikatu beharreko legeria tekniko orokorra hautsiko ere.

5. Hondakinetarako gelen eraikuntza- eta zerbitzu-baldintzak.

1. Hiri hondakinetarako gelen eraikuntza- eta zerbitzu-baldintzek Eraikuntzaren Kode Teknikoaren HS-2 sekzioaren (hondakinen bilketa eta ebakuazioa) 2.1.3 artikuluan jasotakoak bete beharko dituzte.

2. Nolanahi ere, hondakinetarako gelak baldintza egokiak bete beharko ditu honako arlo hauei dagokienez:

— Giro-aireztapenari dagokionez.

— Iragazgaizteari eta lurrak, paretak, sabaiak eta eraikuntzako bestelako elementuak (akaberak, arotzeria, etab.) garbitzeko erraztasunari dagokienez.

— Ur hornidurari dagokionez (hondakin-ontziak garbitzeko arraska eta ur-hartunea) eta saneamendu sareari dagokionez (sifoi-hustubidea eta antimuridoak)

2. El Ayuntamiento, por razones de coordinación, ó funcionales podrá autorizar un único recinto que aúne varios locales pertenecientes a diversas fincas edificadas colindantes.

3. El local se emplazará dentro de la propia edificación. Si por las condiciones urbanísticas de la parcela resultara viable (ordenación pormenorizada vigente), podrá autorizarse su ubicación fuera del propio edificio, sobre suelo de propiedad privada, En todo caso se dará cumplimiento a la condición de distancia máxima prevista en el epígrafe 1 del artículo 2.1.1 de la Sección HS2 «Recogida y evacuación de residuos» del vigente Código Técnico de la Edificación.

4. Condiciones de accesibilidad de los locales.

1. El local destinado al depósito de los residuos urbanos de la finca, quedará preferentemente emplazado en planta baja y con acceso directo desde el exterior. Excepcionalmente se podrá autorizar su emplazamiento en otras plantas bajo rasante de la edificación, siempre que se garantice una correcta funcionalidad en la recogida de los residuos por los servicios municipales, y se cumplan las siguientes condiciones de accesibilidad:

— Entre el local y el exterior del edificio, se dispondrá de un acceso de comunicación directa, e independiente de otros espacios de uso diferente, sean privativos, ó comunes. El recorrido desde exterior al local no será superior a 10 m.

— El recorrido desde el local de residuos urbanos hasta el punto de recogida exterior no tendrá una anchura libre menor de 1,20 m, ni quedará interrumpido por escaleras. Así mismo, en dicho recorrido deberán cumplirse las condiciones de la normativa vigente sobre accesibilidad

— Las puertas de cerramiento del recinto, ó que deban interponerse en el citado recorrido, tendrán un sentido de apertura hacia el exterior del edificio y su hoja no será menor de 1 m de anchura. Las cerraduras de tales puertas quedarán «maestreadas» según las características de las llaves a utilizar por el Servicio Municipal de Recogida de Residuos Urbanos.

2. El Ayuntamiento, previo informe favorable de los Servicios Técnicos Municipales, podrá aceptar otras soluciones alternativas de accesibilidad a los locales, que no se ajusten estrictamente a lo estipulado en el presente epígrafe, siempre que quede plenamente garantizado que de la solución adoptada no se derivarán inconvenientes significativos para la correcta funcionalidad del sistema de recogida de residuos urbanos, ni se conculcarán los objetivos básicos asociados a dicho sistema, ó la legislación técnica de general aplicación.

5. Condiciones constructivas y de servicio de los locales.

1. Las características constructivas y de servicio de los locales destinados al depósito y recogida de residuos urbanos cumplimentarán las instrucciones contenidas en el artículo 2.1.3 de la Sección HS-2 «Recogida y evacuación de residuos» del vigente Código Técnico de la Edificación.

2. En cualquier caso, se garantizarán en el local las debidas condiciones:

— De ventilación ambiental.

— De impermeabilización y facilidad de limpieza de suelos, paredes y techos y otros elementos constructivos (acabados, carpinterías, etc).

— De dotación de abastecimiento de agua (punto de toma y fregadero para la limpieza da cubos) y de red de saneamiento (sumidero sifónico y antimúridos).

— Argiztapen artifizialaren instalazioari eta argindarrari dagokienez (entxufe monofasiko 16 A-rako puntua, estanko IP-65)

— Suteen aurkako babesari dagokionez, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren SI-1 sekzioaren (sute kasuetarako segurtasuna) 2. atalaren arabera.

3. Bestalde, ordenantza honetan arautzen den hondakinak utzi eta bertatik eramateko sistemarako beharrezkoak diren zintzilikarioak edo bestelako elementu eta tresneria jarri beharko dira hondakinetarako gelan.

6. Baldintza tekniko osagarriak

Eraikinetan jarri behar diren hondakinetarako gelen proiektuarekin eta exekuzioarekin lotutako gai guztiei dagokienez indarrean dagoen Eraikuntzaren Kode teknikoak aurreikusten duena beteko da, artikulu honetan espresuki araututa ez badaude.

7. Artikulu honetan zehaztutakoak betetzen ote diren ikusteko egiaztapena

1. Eraikinak eraikitzeko lizentzia eta lehen erabilerarako lizentziak emateko beharrezkoa izango da udaleko zerbitzu teknikoek aldez aurretik egiaztatzea ea eraikin horien sustatzaile publiko nahiz pribatuek ongi bete ote dituzten artikulu honetan ezarritako betebehar eta baldintza guztiak.

2. Egiaztapena egiteko, batetik, oinarrizko eta exekuzio egitasmoak aztertuko dira eta, bestetik, obrak bukatzen direnean lekuan bertan ikuskapena egingo da, eta dena txosten teknikoetan jasota utziko dute.

*17. artikulua. Garbiketa.*

1. Hondakinen gelak garbitzeko ardura etxepeak izango du.

2. Edukiontziak garbi eta txukun edukitzea norberaren ardura izango da.

*18. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.*

«1. Etxebizitza, merkataritza-gune, biltegi, azoka, ikuskizunetako lokal, ikastetxe, industria eta osasun-establezimenduen jabe edo erabiltzaile guztiek eta, oro har, zerbitzu honek eragiten dituen erabiltzaile edo onuradun guztiek:

a) Udal bilketa-zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute.

b) Hondakinen arloan aplikagarria den araudia betetzeko obligazioa dute, batez ere ordenantza honetan jasotzen dena.

c) Udalak eskatuta, hondakinak bota edo uzten dituen pertsona identifikatzeko obligazioa dute.»

*19. artikulua. Erabilpen arauak.*

1. Zerbitzuaren erabiltzaileak, hondakin atal bakoitza ondo sailkatuta eta Udalak horretarako jarritako egun, ordu, modu eta lekuetan utzi beharko ditu.

2. Debekatuta dago hondakin likido zein urtzeko modukoak ateratzea.

— De instalación de iluminación artificial y de red eléctrica (punto de enchufe monofásico16 A, estanco IP-65).

— De Protección contra Incendios según apartado 2 de la Sección SI-1 «Seguridad en caso de incendio» del vigente Código Técnico de la Edificación.

3. Así mismo, el local quedará dotado de los colgadores, ú otros elementos y equipos, debidamente instalados, que para su funcionamiento requiera el sistema de depósito y recogida de residuos urbanos regulado por la presente Ordenanza.

6. Condiciones técnicas complementarias

En todas las materias, relacionadas con el proyecto y ejecución de los locales destinados al depósito y recogida de residuos urbanos a implantar en las edificaciones, y que no quedan explícitamente reguladas por el presente artículo, se atenderá a lo previsto al efecto por el vigente Código Técnico de la Edificación.

7. Verificación del cumplimiento de las determinaciones del presente artículo

1. La concesión de las correspondientes licencias de construcción y de primera utilización de las edificaciones, conllevará la verificación previa por los Servicios Técnicos Municipales del correcto y completo cumplimiento por parte de los promotores, públicos, ó privados, de las citadas edificaciones, de las obligaciones y condicionados establecidos en el presente artículo.

Tal verificación se llevará a cabo en el examen de los Proyectos Básicos y de Ejecución, y en las inspecciones a efectuar «in situ» con la terminación de las obras y se dejará constancia de la misma en los correspondientes informes técnicos que al efecto deban emitirse.

*Artículo 17. Limpieza.*

1. La limpieza del local de depósito de residuos será responsabilidad del edificio

2. Será responsabilidad de los usuarios mantener en condiciones de limpieza los contenedores.

*Artículo 18. Derechos, obligaciones y responsabilidad de los usuarios.*

«1. Todo propietario, usuario de una vivienda, establecimiento comercial, almacén, mercado, local de espectáculos, centro de enseñanza, industria, establecimiento sanitario, y en general, todo usuario afectado o beneficiado por este servicio tiene:

a) El derecho a utilizar el servicio de recogida municipal.

b) La obligación legal de cumplir la normativa legal aplicable en materia de residuos, y específicamente la contenida en la presente ordenanza.

c) La obligación de, a requerimiento municipal, identificar a la persona que deposita o abandona los residuos».

*Artículo 19. Normas de uso.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los residuos domiciliarios segregados en cada una de las fracciones en el día, la hora, la forma y el lugar fijados por el ayuntamiento.

2. Se prohíbe el depósito de basuras que contengan residuos líquidos o susceptibles de licuarse.

3. Debekatuta dago hondakinak nonahi uztea. Erabiltzaileak behartuta daude jarritako ordutegian, lekuetan eta moduan uztera.

4. Debekatuta dago bilketa lekuak hondatu edo desitxuratu dezakeen edozein ekintza.

5. Debekatuta dago ere kaleko koloreetako paperontzi edo hondakin ontzietan etxeetan sortu diren hondakin poltsak uztea.

*20. artikulua. Hondakin organikoen gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude hondakin organikoak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Zati organiko moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 1.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

3. Udalak konpostagarriak diren eta berak ezartzen dituen fabrikazio baldintzak betetzen dituen zorroak erabiltzeko aukera emango du.

*21. artikulua. Papera eta kartoiaren gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude papera eta kartoia uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Papera eta kartoi moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 2.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

*22. artikulua. Ontzi arinen gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude ontzi arinak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Ontzi arin moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 3.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

3. Ontzi hauek hutsak utziko dira.

*23. artikulua. Beirazko ontzikien gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude beirazko ontzikiak uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Beirazko ontzikiak bide publikoan horretarako dauden ontzietan utziko dira. Edukiontzi horietan bakarrik utzi ahal izango dira Ordenantza honen I eranskineko 4.a puntuan adierazten diren materialak.

*24. artikulua. Errefus zatiaren gaikako bilketa.*

1. Zerbitzua erabiltzen dutenak behartuta daude errefus zatia uztera, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera.

2. Errefus zati moduan utziko dira Ordenantza honen I eranskineko 5.a puntuan adierazten diren hondakinak bakarrik.

3. Pixoihal eta zapi higienikoak egunero atera ahal izango dira, Udalak horretarako adierazitako modu eta ordutegiaren arabera. Egun horretan tokatzen den hondakin zatiarekin batera zintzilikatzekoan utziko dira.

*25. artikulua. Merkataritza eta ostalaritza.*

1. Merkataritza zein ostalaritzako arduradunak behartuta egongo dira hondakinak aurreko artikuluetan adierazten den moduan kudeatzera; hau da, horiek ere hondakinak zatika banatu beharko dituzte eta zati bakoitza 19., 20., 21., 22., 23. eta 24. artikuluetan adierazten den moduan kudeatu.

3. Se prohíbe el abandono de residuos. Los usuarios están obligados a depositarlos con arreglo a los horarios y en los lugares y forma señalados.

4. Queda prohibida cualquier actuación que deteriore el contenedor o las zonas de recogida, funcional o estéticamente.

5. Queda también prohibido depositar en las papeleras o contenedores de la calle los residuos generados en la vivienda

*Artículo 20. Recogida selectiva de la fracción orgánica.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar la fracción orgánica en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Se entregarán como fracción orgánica únicamente los residuos señalados en el punto 1.a del Anexo I de la presente Ordenanza.

3. El Ayuntamiento dará la opción de usar bolsas compostables que deberán cumplir las condiciones de fabricación que establezca el Ayuntamiento de Lezo.

*Artículo 21. Recogida selectiva de papel y cartón.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar el papel y el cartón en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Se entregarán como papel y cartón únicamente los residuos señalados en el punto 2.a del Anexo I de la presente Ordenanza.

*Artículo 22. Recogida selectiva de envases ligeros.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los envases ligeros en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Se entregarán como envases ligeros únicamente los residuos señalados en el punto 3.a del Anexo I de la presente ordenanza.

3. Los envases se entregarán vacíos.

*Artículo 23. Recogida selectiva de envases de vidrio.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar los envases de vidrio en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Los envases de vidrio se depositarán en los contenedores ubicados al efecto en la vía pública. En estos contenedores únicamente se depositarán los materiales señalados en el punto 4.a del Anexo I de la presente Ordenanza.

*Artículo 24. Recogida selectiva de la fracción rechazo.*

1. Los usuarios del servicio están obligados a entregar la fracción rechazo en la forma y los horarios que establezca el ayuntamiento.

2. Se entregarán como fracción rechazo únicamente los residuos señalados en el punto 5.a del Anexo I de la presente Ordenanza.

3. Los pañales y trapos higiénicos podrán sacarse todos los días según en horario y modo señalado por el Ayuntamiento. Se sacarán junto con la fracción de residuo que toque ese día y depositarán en el colgador.

*Artículo 25. Comercio y hostelería.*

1. Las personas responsables de comercios y hostelería están obligadas a gestionar los residuos en la forma indicada en los artículos anteriores, es decir, deberán segregar los residuos y gestionar cada fracción en la forma en indicada en los artículos 19, 20, 21, 22, 23 y 24.

2. Arrandegiek arrain hondakinak horretarako baimena duten kudeatzaileekin kudeatu beharko dituzte eta Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

3. Harategiek haragi hondakinak horretarako baimena duten kudeatzaileekin kudeatu beharko dituzte eta Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

4. Merkatari eta ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten porespanezko bildukiak kudeatzaile propioekin kudeatu beharko dituzte eta, Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

5. Ostalariek, jardueraren ondorioz sortzen duten olio erabilien hondakina kudeatzaile gaitu propioekin kudeatu beharko dituzte eta Udaletxean aurkeztu, Udalak hala eskatzen dien bakoitzean, kudeaketa horien agiriak.

*26. artikulua. Ekoizle handiak.*

Zenbait komertzio eta enpresetako hondakinek arazoak sor ditzakete hondakinen bilketa-zerbitzuan, batik bat hondakin horien bolumenagatik.

Horregatik, horrelako kasuetan, erabiltzaileak hondakin horiek utzi beharko ditu Udalak jarritako lekuetan, hondakinak isurtzeko arriskutik kanpo. Edukiontzi horiek homologatuak izango dira eta haiek garbitzeaz eta mantentzeaz erabiltzailea arduratuko da.

Enpresa handiak Udalak hondakin bilketa zerbitzutik kanpo utz ditzake hondakinaren ezaugarriak edo hondakin kopuruak berak bilketa zerbitzua asko eragozten duenean.

## II. KAPITULUA BILKETA BEREZIAK

### I ATALA. Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa

*27. artikulua. Sarrera.*

1. Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak udalak zehazturiko asteko egun eta tokian utziko dira.

2. Zerbitzu hori doakoa izango da hiritarrentzat.

3. Debekatuta geratzen da beraz, horiek udalak zehazturiko asteko egun eta tokiz at uztea.

### II ATALA. Hondakin toxiko eta oihalak

*28. artikulua. Sukaldeko olioa.*

Mota horretako hondakinak horretarako kalean jarritako edukinontzitan utziko dira edo Garbigunera eraman beharko dira edo mota horretako hondakinak biltzeko jartzen den San Marko Mankomunitatearen kamioira (Garbigune ibiltaria), horretarako ezarritako egun eta ordutegian.

*29. artikulua. Etxeetan sortzen diren gainontzeko hondakin arriskutsuak.*

Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira edo mota horretako hondakinak biltzeko jartzen den San Marko Mankomunitatearen kamioira (Garbigune ibiltaria), horretarako ezarritako egun eta ordutegian.

Atal horretan sartzen dira: Lanpara fluoreszente zein bestelakoak, mugikorren bateriak zein mugikorrak berak, pintura, disolbatzaile eta abarren poteak eta abar luze bat.

2. Las pescaderías deberán gestionar los residuos del pescado con gestores autorizados y deberán presentar siempre que así lo solicite el Ayuntamiento los justificantes de esa gestión.

3. Las carnicerías deberán gestionar los residuos cárnicos con gestores autorizados y deberán presentar, siempre que así lo solicite el Ayuntamiento los justificantes de esa gestión.

4. Los hosteleros deberan gestionar los embalses de poliespan usados en su actividad con gestores autorizados y deberán presentar siempre que así lo solicite el Ayuntamiento los justificantes de esa gestión.

5. Los hosteleros deberan gestionar los residuos de los aceites usados en su actividad con gestores autorizados y deberán presentar siempre que así lo solicite el Ayuntamiento los justificantes de esa gestión.

*Artículo 26. Grandes productores.*

Ciertos comercios pueden ocasionar distorsiones en el servicio de recogida de residuos, principalmente debido al volumen de estos.

Por lo tanto, en tales casos, el usuario deberá depositar los residuos urbanos en los lugares y formas que determine el ayuntamiento, libres de todo riesgo de vertido. Dichos contenedores deberán ser homologados y corresponderá al usuario el mantenimiento y limpieza de los mismos.

El Ayuntamiento podrá excluir a las grandes empresas del servicio de recogida de residuos asimilables cuando su composición o la cantidad de residuos dificulten extraordinariamente la recogida de los mismos.

## CAPITULO II RECOGIDAS ESPECIALES

### SECCIÓN I. De la recogida de muebles, enseres domésticos y trastos viejos

*Artículo 27. Introducción.*

1. Los muebles, enseres domésticos y trastos viejos se depositarán en los lugares especificados por el Ayuntamiento el día de la semana que proceda.

2. Este servicio será gratuito para los ciudadanos

3. En consecuencia, queda prohibido depositar este tipo de residuos fuera del día y horario establecidos por el Ayuntamiento para tal fín.

### SECCIÓN II. Residuos tóxicos y textiles

*Artículo 28. Aceite doméstico.*

Estos aceites se depositarán en los contenedores habilitados para tal fin en la vía pública o se entregarán en el Garbigune, o bien en el camión o punto limpio móvil que dispone la Mancomunidad de San Marcos para la recogida de este tipo de residuos, en el día y horario que se establezca para ello.

*Artículo 29. Resto de residuos domiciliarios peligrosos.*

Estos aceites se entregarán en el Garbigune, o bien en el camión o punto limpio móvil que dispone la Mancomunidad de San Marcos para la recogida de este tipo de residuos, en el día y horario que se establezca para ello.

Se incluyen en este apartado: Lámparas fluorescentes y de otro tipo, pilas de móviles y móviles, botes de pintura, disolvente, y un largo etc.

*30. artikulua. Pilak.*

Hauek horretarako kalean jarritako edukinontzitan utziko dira edo Garbigunera eraman ahal izango dira edo, bestela, elektrotresnak saltzeko puntuetara eraman.

*31. artikulua. Oinetakoak eta oihalak.*

Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira edo, bestela mota horretako materiala jasotzeko edukiontzietara bota; beti ere, modu txukunean eta erabat edukiontzian sartuta utziko direlarik.

III ATALA. Obra hondakinak

*32. artikulua. Obra hondakinak.*

1. Erabat debekatuta dago udalerri honetako kale, partzela edo guneetan edozein obra hondakin uztea.

2. Mota horretako hondakinak Garbigunera eraman beharko dira.

*33. artikulua. Neurriak.*

1. Obra hondakin edo lurren garraioa behar bezalako baldintzetan egin beharko da, saihestuz beti ere, bide publikoa zikintzea. Horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dira.

2. Bide publikoa zikinduz gero garbitu eta lehenera itzuli beharko da.

IV ATALA. Garbigunea. Lezon Oiartzungoa erabiliko da, eta SM Mankomunitateko guztiak erabili daitezke

*34.artikulua. Garbigunea.*

1. Garbigunea etxeko hondakinak eta antzekoak gaika biltzea ahalbidetzen duen zentroa da.

2. Eskaintzen duen zerbitzua doakoa izango da herritarrentzat, zerbitzu hori hondakinen tasen barruan sartuta egongo delako.

